



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, IRUNGO UDALAREN 2000-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Irungo Udalaren kontuen gaineko fiskalizazio txostena mamitu du, 2000ko urtealdikoa. Fiskalizazio lanak Udal Erakunde Autonomoak eta Mendibil Merkataritza Parkea, SA sozietate publikoa besarkatu ditu.

Fiskalizazioak kontularitza eta legezketasunaren alderdiak, udal kudeaketari buruzko hutsak eta gomendioak eta azterketa finantzario bat barne hartu ditu.

Legea betetzeari dagokionez udalaren jardueran HKEEek aldeko iritzia azaldu badu ere, txostenean zehaztasunez jasotako hainbat ezbetetze azaleratu dira.

2000n indarrean zeuden Lanpostuen Zerrenden edukiak hainbat huts erakutsi ditu; txostena oniritzi denean, ordea, HKEEek egiaztatu du jada zuzenduak izan direla. Halaber, langileriaren alorrean, ordezkapenatarako zerrendak egiteko, sei hilabetez lehenago udalerrian bizi izaten egotea eskatzen dela ikusi dugu, eta horrek Euskal Funtzio Publikoaren Legea urratzen du.

Administrazioko kontratazioaren esparruan erakunde fiskalizatzaileak ikusi du hainbat huts egin direla aztertutako kontratu batzuetan, publizitate eta lehia printzipioen aplikazio ezari dagozkionak. Orobat, Idazkari eta Artekariak kontratazio mahaietan ez parte hartzeak Administrazio Publikoetako Kontratuen Legea urratzen duela adierazi da.

Udalaren kontuei dagokienez, fiskalizazio txostenak aldeko iritzia eman du horren eduki eta aurkezpenari dagokionez, hainbat salbuespen azaleratzen dituela, 2000ko abenduaren 31ko Gastu Orokorretarako Gerakina 3.330 milioi pezetan ezarriz.